



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

**2012ko AZAROAREN 22an EGINDAKO
OHIKO OSOKO BILKURAREN
AKTA**

**ACTA DEL PLENO ORDINARIO
CELEBRADO EL 22 DE NOVIEMBRE DE
2012.**

Olaberrian, 2012ko azaroaren 22an, 18:35ak izanik Udaletxeko Pleno Aretoan bildu dira Alkatea, Jokin Garmendia Asurabarrena, Jose Manuel Garrido Fernandez, Amaia Cuellar Gonzalez, Jose Antonio Barandiaran Estala, Jose Bernardo Aldasoro Insausti eta Gema Echaniz Badiola eta Iñigo Sarasola Aranzasti zinegotziak.

En Olaberria, a 22 de noviembre de 2012, siendo las 18:35 horas se han reunido en el Salón de Plenos del Ayuntamiento el Alcalde Jokin Garmendia Asurabarrena, los concejales José Manuel Garrido Fernandez, Amaia Cuellar González, Joseba Barandiaran Estala, José Bernardo Aldasoro Insausti, Gema Etxaniz Badiola e Iñigo Sarasola Aranzasti.

Bertan dago eta fede ematen du Jesus M. Aguirrezabala Esnal Behin Behineko Idazkari Kontu-hartzaileak.

Asiste y da fe del acto el Secretario-Interventor Accidental Jesús M. Aguirrezabala Esnal.

Osoko Bilkura legez osatzeko beharrezkoa den zinegotzi kopurua bertaratu dela egiaztatu ondoren, gai zerrendako lehenengo puntua aztertzeari ekiten dio Udalbatzak.

Comprobado que asiste el número suficiente de concejales para la válida constitución de la Sesión Plenaria, el Alcalde declara abierta la sesión pasándose a examinar el primer asunto del Orden del Día.

AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONARPENA.

APROBACIÓN DE LAS ACTAS DE LA SESIONES ANTERIORES.

Alkateak, onartzeko dauden Akten berri ematen du:

El Alcalde informa de las actas que se traen para su aprobación:

- 2012ko irailaren 20ko Ohiko Batzarraren Akta.

- Acta del Pleno ordinario de 20 de septiembre de 2012.

Akta bozkatzen da, gehiengo absolutuz

Se procede a la votación y se aprueba el acta



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

onartzen direlarik, Bildu taldekoak diren Gema Etxaniz eta Iñigo Sarasola zinegotzien kontrako botoarekin.

- 2012ko urriaren 11ko Ez Ohiko Batzarraren Akta.

Akta bozkatzen da, gehiengo absolutuz onartzen direlarik, Bildu taldekoak diren Gema Etxaniz eta Iñigo Sarasola zinegotzien kontrako botoarekin.

ALKATETZAKO GAIAK

ALKATETZA-EBAZPENEN BERRI EMATEA.

Alkate jaunak dio joan zen batzorde informatzaileetan aurreko Osoko Bilkuratik aurrera emandako Alkatetza-Ebazpenen inguruko azalpena eman zela, 155/2012tik 181/2012-ra bitartean.

Jose Bernardo Aldasoro zinegotzia ez dago Tiro zelaiaren jarduera proiektuaren ingurumen inpaktua ebaluatzeko ikerketari buruzko 161/2012 alkatetza ebazpenarekin ados.

Udal kideak jakinaren gainean gelditzen dira.

AZPIEGITURA ETA HIRIGINTZA

BALKOIEN ITXIERAKO ORDENANTZA

con el voto en contra de los concejales del grupo BILDU Iñigo Sarasola y Gema Etxaniz.

- Acta del Pleno Extraordinario de 11 de octubre de 2012.

Se procede a la votación y se aprueba el acta con el voto en contra de los concejales del grupo BILDU Iñigo Sarasola y Gema Etxaniz.

TEMAS DE ALCALDIA

DAR CUENTA DE LOS DECRETOS DE ALCALDÍA.

El señor alcalde informa de que se dio cuenta en las pasadas comisiones informativas de los Decretos de Alcaldía adoptados a partir del último Pleno Ordinario, es decir, del 155/2012 al 181/2012.

El concejal José Bernardo Aldasoro no está de acuerdo con el Decreto 161/2012 relativo al estudio de impacto ambiental del proyecto de actividad del campo de tiro.

Los Corporativos quedan al corriente.

INFRAESTRUCTURA Y URBANISMO

ORDENANZA DE CERRAMIENTO DE BALCONES



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

Alkateak dioen bezala, gaia udal kideei azaldu zieten aurreko batzorde informatzailean, horrela jasota geratzen delarik:

Izaskun eta Irazabalbeitia arkitektoek Olaberria udalerriko balkoiak eta terrazak zati batez itxi eta horietan arotzeria jartzeko modua arautzen duen Ordenantzaren proposamena egin dute.

Bertan jasotako edukiak eta gaiaren inguruan egindako txosten juridikoa ikusirik, Udalbatzari ondorengo erabakia hartzea proposatu zaio:

Lehenengoa.- Olaberria udalerriko balkoi eta terrazak zati batez itxi eta horietan arotzeria jartzeko modua arautzeko Ordenantza hasiera batez onartzea.-

Bigarrena.- Hogeita hamar lanegunez espedientea jendaurrean jartzea eta interesatuentzat entzunaldiko izapidea ezartzea.

Hirugarrena.- Aipatu epean alegazio edo iradokizunik aurkeztu ezean, erabakia behin betikoz onartuta dagoela ulertuko da.

Gaia bozkatzen da aho batez onartzen delarik.

El alcalde expone que ya explicó el asunto a los corporativos en la pasada comisión informativa, que dictaminó en los siguientes términos :

Por parte de los Arquitectos Seres. Izaskun e Irazabalbeitia, se ha elaborado la propuesta de la Ordenanza reguladora del cierre parcial y de instalación de carpinterías en los balcones y terrazas del término municipal de Olaberria.

Conocidos sus contenidos, así como el informe jurídico elaborado al respecto, se propone al Pleno Municipal adopte el siguiente acuerdo:

Primero.- Otorgar la aprobación inicial a la Ordenanza reguladora del cierre parcial y de instalación de carpinterías en los balcones y terrazas del término municipal de Olaberria.

Segundo.- Someter el expediente al trámite de información pública y audiencia a los interesados por el plazo de treinta días hábiles.

Tercero.- En caso de que no se presentara ninguna alegación ó sugerencia en el reseñado plazo, el acuerdo se entenderá adoptado con carácter definitivo.

Se somete el asunto a votación, quedando aprobado por unanimidad.

OGASUNA ETA UDAL ZERBITZU
TEKNIKOAK

HACIENDA Y SERVICIOS TÉCNICOS
MUNICIPALES



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

**3.000 EUROTIK GORAKO
FAKTUREN ONARPENA.**

**APROBACIÓN DE LAS FACTURAS
SUPERIORES A 3.000 EUROS.**

Joan zen batzorde informatzailean faktura bakoitzaren berri eman zitzaien udal-kideei.

Se dio cuenta de cada factura a los corporativos en la pasada comisión informativa.

ZBK.	IZENA	CIF	AZALPENA	KOPURUA
1	ALET TALDEA S.L.	B20870416	FRA. 12-048	20.174,02 €
2	GOROLDI S.L.U.	B20502613	FRA. 1201285	3.151,57 €
3	EKOS ESTUDIOS AMBIENTALES, S.L.U.	B20189254	FRA. 111	5.875,76 €
4	EXCAVACIONES GAÑERA, S.L.	B20659793	FRA. 41/2012	6.299,38 €
5	EULEN S.A.	A28517308	FRA. 2579324	4.126,80 €
6	BASTIDA KEREJETA, MARIA JESUS (ARRIETA)	15952400	FRA. 4970	6.200,00 €
7	IZFE	A20456976	FRA. 2012/1479	5.127,25 €
8	GOROLDI S.L.U.	B20502613	FRA. 1201430	3.151,57 €
9	TAPIA INSTALAZIO TEKNIKOAK, S.L.	B20719456	FRA. 200000418	4.261,40 €
10	EULEN S.A.	A28517308	FRA. 2583866	4.267,11 €
11	GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA	P2000000F	KUDEAKETA KOSTUA	4.537,45 €

Fakturak bozkatzeko dira gehiengo absolutuz onartzen direlarik, Bildu taldeko zinegotziak diren Gema Etxaniz eta Iñigo Sarasola zinegotzien aurkako botoarekin.

Se procede a votar las facturas que son aprobadas por mayoría absoluta con el voto en contra de los concejales del grupo Bildu Gema Etxaniz e Iñigo Sarasola.

Iñigo Sarasolak faktura guztiak ikusi nahi dituela adierazten du.

Iñigo Sarasola reitera que quiere ver todas las facturas.

**DIRUZAINZAREN EGOERA.
INFORMAZIOA.**

**SITUACIÓN DE TESORERÍA.
INFORMACIÓN.**

Udal - kideei 2012ko azaroaren 12ari dagokion diruzaintzaren egoera aurkeztu zitzaizen joan zen batzorde informatzailean.

Se presenta a los corporativos en la pasada comisión informativa la situación de tesorería a fecha 12 de noviembre de 2012.

Udalak, kutxan, banketxe ezberdinetako kontuetan eta epe laburrera eginiko inbertsioen artean, guztira, **943.785 euro** ditu.

El Ayuntamiento dispone entre la caja, las cuentas en las distintas entidades y las inversiones a corto plazo, un total de **943.785 euros**.

Udal kideak jakinaren berri gelditzen dira.

Los Corporativos quedan al corriente.



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

UDALETXEKO PERTSONALA

20/2012 ELD-aren arabera, Eudelek aurrekontuen egonkortasuna bermatzeko Euskal Herriko Udaletxeetako langileei eragingo dien neurriei buruzko zirkular batean proposamen batzuk aipatzen ditu.

Proposamenak, gai hauen inguruan izan dira: ezgaitasun iragankor kasuetan ordainak, abenduko aparteko ordainsaria, gizarte segurantzako kotizazioak, baimenak eta oporrak.

Gaia bozkatzen da aho batez onartzen ez delarik.

Ados egon ez direlarik, akatatu egin behar baldin bada, lege-aginduz egingo da.

2013KO LAN EGUTEGIA

Joan zen batzorde informatzailean gaiaren berri eman zitzairen udal-kideei.

Horren inguruan, Bilduko zinegotzia, Iñigo Sarasolak estatuko jai egunekin ez dago ados eta langileei utzi beharko zitzairen beste egun batean hartu ahal izatea.

Bere aldetik, OHE taldeko zinegotzia, Jose Bernardo Aldasorok udalak herritarrei zerbitzua emateko arratsalderen batean irekita egon behar zuen.

ONGIZATEA ETA OSASUNA

HIRUGARREN MUNDURAKO

PERSONAL DEL AYUNTAMIENTO

Desde Eudel se ha enviado una circular sobre los efectos en el ámbito del personal de los Ayuntamientos Vascos de las medidas para garantizar la estabilidad presupuestaria sus propuestas, según RDL 20/2012.

Las propuestas se refieren a los siguientes aspectos: retribuciones en caso de baja por incapacidad temporal, paga extraordinaria de diciembre, cotizaciones a la seguridad social, permisos y vacaciones.

Se somete el asunto a votación, quedando rechazado por unanimidad.

No estando de acuerdo, si hay que acatarlo se acatará por imperativo legal.

CALENDARIO LABORAL 2013

Se dio cuenta del tema a los corporativos en la pasada comisión informativa.

Al respecto, el concejal de Bildu, Iñigo Sarasola indica que no están de acuerdo con algunos festivos estatales y que se debería dejar libertad a los trabajadores para decidir cuándo coger esos festivos.

Por su parte, el concejal de OHE, José Bernardo Aldasoro comenta que el Ayuntamiento para dar servicio a los ciudadanos tiene que abrir alguna tarde.

BIENESTAR SOCIAL Y SANIDAD

AYUDAS AL TERCER MUNDO



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

DIRULAGUNTZAK

Joan zen batzorde informatzailean gaiaren berri eman zitzaien udal-kideei. Banatu beharreko kantitatea 18.000 € da, udal aurrekontuaren sarrera arrunten %1 suposatzen duena.

Gizarte teknikariak baldintzak betetzen dituzten 3 eskaeren artean banatzea proposatzen du. 5.100€ -ko eskaera bat dago eta Batzordeak geratzen den kopurua beste bi eskaeren artea banatzea proposatzen du, 6.450€-ko bakoitza.

Proposatzen den banaketa honako hau da:

1.- ONG ALBA (El Alto. La Paz Bolivia):
Cinca Proiektua - Centro Integral de los niños de y en la calle (5.100,00€).

2.- Felix Alonso Alonso. Proiektua:
Rwandako ETEKA eskola, ikasle txiroei ikasketa gastuak ordaintzeko.(6.450,00€).

3.- Leonardo Esnaola (Gihara Ruanda):
Leonardo Esnaola (Gihara Ruanda):
Proiektua. Giharako eskolatu gabeko haurren ikas txokoa (eskolatu gabeko haurrentzako eskola). Monitoreak, janaria, eskola materiala, jantziak, mediku arreta,. (6.450 €)

Gaia aztertu ondoren, batzordeak egindako proposamena onartzen du Udalbatzak aho batez

Tal y como se informó en las pasadas comisiones informativas, se dispone de 18.000 € para repartir en ayudas al tercer mundo que supone el 1% de los ingresos corrientes del presupuesto municipal.

La asistente social propone que se reparta en 3 solicitudes que cumplen con los requisitos . Hay una solicitud que pedía 5.100 € , y la Comisión propone repartir el resto entre las otras 2 solicitudes quedando en 6.450€ cada una .

El reparto que se propone es el siguiente:

1.- ONG ALBA (El Alto . La Paz Bolivia)
Proyecto CINCA (Centro Integral de los niños de y en la calle). (5.100,00 €).

2.- Félix Alonso Alonso (Escuela ETEKA de Rwanda) Proyecto: ayuda para pagar los gastos de estudiantes pobres. (6.450 €).

3.- Leonardo Esnaola (Gihara Ruanda):
Proyecto. Giharako eskolatu gabeko haurren ikas txokoa (escuela para niños no escolarizados). Monitores, comida, material escolar, ropa, cuidados médicos,. (6.450,00 €).

Estudiado el tema, el Pleno aprueba por unanimidad la propuesta realizada por la comisión.

AZAROAREN 25a DELA-ETA
ALDARRIKAPEN INSTITUZIONALA
EMAKUMEENGANAKO
INDARKERIAREN KONTRAKO
NAZIOARTEKO EGUNA

**DECLARACION INSTITUCIONAL CON
MOTIVO DEL 25 DE NOVIEMBRE DIA
INTERNACIONAL CONTRA LA
VIOLENCIA HACIA LAS MUJERES**



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

Aldarrikapen honen berri ematen da, horrela jasota den moduan:

Azaroaren 25a dela-eta, hau da, Nazio Batuen Batzar Nagusiak Emakumeenganako indarkeria desagerrarazteko nazioarteko eguna aitortutako eguna dela-eta, Olaberriko udalak indarkeria matxistaren aurkako gaitzespena agertu du. Emakumeenganako indarkeriaren kontrako edozein adierazpen gaitzesten dugu, dimentsio orotan (fisikoa, psikologikoa, sexuala, sinbolikoa), bai eta sexismo mota oro ere, arinenak eta normalizatuenak barne, esaterako sexuaren araberako rol estereotipatuak; neska eta emakumeen ikusezintasuna bizitzako hainbat arlotan, bigarren mailara zokoratuz; sexu eta ugalketa eskubideen ezeztapena; edota pertsonetikiko diskriminazioa euren sexu-aukeraren edo genero identitatearen ondorioz.

Belaunaldi gazteagoen artean emakume nahiz gizonen arteko desberdintasunak eta emakumeenganako indarkeria gailenduta daudelako mitoa baino harago, errealitateak erakusten digu gazteen artean dagoen indarkeria matxista, baita adinez txikikoen artekoa ere, benetan kezagarria dela.

Horrenbestez, ezinbestekoa da ulertzea ezin daitekeela emakumeenganako indarkeriaren kontra borroka egin, gizonezkoen eta emakumezkoen ereduak sakon eraldatu gabe, ez eta gizonezkoen eta emakumezkoen arteko harreman afektibo eta sexualak eraikitzeke modua aldatu gabe ere. Horregatik, tokiko gobernuok konpromiso aktiboa izan behar dugu udalerriko gazteekin lan egin eta indarkeria matxista prebenitzeko,

Se da cuenta de la declaración que es del siguiente tenor :

Con motivo del 25 de Noviembre, fecha declarada por la Asamblea General de Naciones Unidas como Día Internacional para la eliminación de la violencia contra las mujeres, el Ayuntamiento de Olaberria expresa su firme repulsa a la violencia machista. Manifestamos nuestro rechazo hacia cualquier expresión de violencia contra las mujeres en todas sus dimensiones (física, psicológica, sexual, simbólica), as como a cualquier forma de sexismo, incluidas las más sutiles y normalizadas, como la asignación de roles estereotipados por sexos, la invisibilización de niñas y mujeres en los distintos ámbitos de la vida y su relegación a papeles secundarios, la negación de sus derechos sexuales y reproductivos, o la discriminación hacia las personas por sus opciones sexuales o su identidad de género.

Lejos del mito de que en las generaciones más jóvenes la desigualdad entre mujeres y hombres y la violencia contra las mujeres están superadas, la realidad nos muestra que la incidencia de la violencia machista en la población joven, incluso menor de edad, es verdaderamente preocupante.

Es imprescindible comprender que no se puede luchar contra la violencia hacia las mujeres sin abogar por un cambio profundo de los modelos de masculinidad y feminidad así como de la manera en que se construyen las relaciones afectivas y sexuales entre las mujeres y los hombres. Por ello, como gobierno local debemos tener un compromiso activo de trabajar la prevención de la violencia machista con las y los



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

ahalegina eginez eta beharrezkoak diren baliabideak eskainiz. Hori horrela, errespetuan, askatasunean, autonomian eta berdintasunean oinarritutako harremanak eraikitzen lagunduko diegu gazteei.

Prebentzioko prozesu honek erreferentziazko eredu berriak sortzea ahalbidetzen du, hain zuzen ere, mutilek eta gizonek pribilegiozko jarrerarik eduki ez dezaten nesken eta emakumeen aldean, izan ere, indarkeria matxistaren jatorria emakumeen menpekotasuna eta diskriminazioa betikitzen duen botere-harremanean dago. Beldur Barik programan Euskadiko udalek hartzen dute parte, eta helburua da sexismotik aldentzen diren neska-mutikoen jarrera positibo eta egunerokoak antzeman eta ikustaraztea, izan ere, jarrera horiek rol tradizionalekin hautsi eta gizarte berdintsuagoa eraikitzea dute xede.

Erakundeetatik eta, erakunde hurbilenetik, udaletik, indarkeria matxistaren kontrako ardura soziala eta politikoa gure gain hartu behar dugu, eta, horretarako, norberaren aurreiritziak, rolak eta eguneroko jarrerak berrikusi beharko ditugu. Norberak erantzukizun horiek bere gain hartuz gero, aldaketarako konpromisoa lortuko da.

Olaberriko Udala:

Beldur Barik programaren edukiekin bat dator, gazteak indarkeria matxistaren gainean sentsibilizatu eta hura prebenitzeko moduak lantzeko tresna gisa.

Herritarrei gonbit egiten die konpromiso pertsonalak eta kolektiboak hartzeko,

jóvenes del municipio, dedicando el esfuerzo y los recursos necesarios para acompañar a la juventud en la construcción de relaciones basadas en el respeto, la libertad, la autonomía y la igualdad.

Este proceso preventivo incluye generar nuevos modelos de referencia que no atribuyan a los chicos y hombres una posición de privilegio sobre las chicas y las mujeres, dado que el origen de la violencia machista se encuentra en esa relación de poder que perpetúa la subordinación y la discriminación de las mujeres. El programa Beldur Barik, en el que participan los ayuntamientos vascos, tiene como objetivo precisamente identificar y visibilizar esas actitudes positivas y cotidianas de chicas y chicos que se desmarcan del sexismo, que rompen con los roles tradicionales y se implican en la construcción de una sociedad igualitaria.

Desde las instituciones y desde la más cercana, el ayuntamiento, debemos asumir nuestra responsabilidad social y política ante la violencia machista, empezando por el ejercicio personal y colectivo de revisar nuestros prejuicios, roles y actitudes cotidianas. Sólo de la asunción de estas responsabilidades como propias se derivará el compromiso de cambio.

El Ayuntamiento de Olaberria:

Comparte los contenidos del programa Beldur Barik, como herramienta para trabajar en la sensibilización y prevención de la violencia machista con la juventud.

Invita a la ciudadana a adoptar compromisos



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

emakumeen eta gizonezkoen arteko berdintasunaren alde, baita edozein indarkeria edo diskriminazio sexista gaitzesteko ere.

Gonbit egiten die herritar guztiei, eta bereziki neska-mutilei, azaroaren 25ean, Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna dela-eta izango diren ekitaldietan era aktiboan parte hartzera.

Gaia aztertu ondoren, batzordeak egindako proposamena onartzen du Udalbatzak aho batez

personales y colectivos a favor de la igualdad entre mujeres y hombres; incluido el rechazo a cualquier manifestación de violencia o discriminación sexista.

Anima a toda la ciudadana, y en especial, a las chicas y chicos jóvenes, a participar activamente en los diferentes actos convocados con motivo del 25 de noviembre, Día Internacional contra la Violencia hacia las Mujeres.

Estudiado el tema, el Pleno aprueba por unanimidad la propuesta de la Comisión.

URGENTZIAK

PRESO GAIXOEN ESKUBIDEEN ALDEKO MOZIOA

Gai zerrendan jasota ez zegoenez, lehendabizi mozioa tratatuko den ala ez bozkatzen da.

Gaia bozkatzen da gehiengo absolutuz onartzen delarik, OHE taldeko Jose Bernardo Aldasoro eta OEO taldeko Jokin Garmendiaren aurkako botoekin.

Alkateak zinegotziei mozioaren kopia bat banatzen die.

URGENCIAS

MOCION A FAVOR DE LOS DERECHOS DE LOS PRESOS ENFERMOS

Dado que no figuraba incluida en el Orden del día de la sesión, se vota en primer lugar si se trata la moción.

Se somete el asunto a votación, quedando aprobado por mayoría absoluta con el voto en contra del concejal del grupo OHE, José Bernardo Aldasoro y el concejal de OEO, Jokin Garmendia.

El Alcalde reparte una copia de la moción a los concejales.



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

Preso gaixoen eskubideen aldeko MOZIOA

Giza eskubideen ikuspuntutik egoera gordina ari gara bizitzen. Azken asteetan, Josu Uribetxeberria presoaren osasun egoera atzera ezina izan dugu mahai gainean. Legea beteaz, eta berandu bada ere, baldintzapeko askatasun egoeran geratu da preso arrasatearra. Hala ere, ba dira oraindik oso gaixorik eta kartzelan jarraitzen duten presoak. Hamahiru herritar hain zuzen ere. Egoera hau, beren egoera fisikoa eta bere senitartekoen ezinegona okertu eta areagotzea ari da eragiten. Pertsona gisa eta preso gisa zor zaizkien eskubideak ukatuz.

Hamahiru preso gaixo hauek, sufritzen dituzten gaixotasunei behar bezalako jarraipena egitea bateraezina da espetxean egotearekin, honako arrazoi hauengatik: Espetxeak ezin duelako eskaini tratamendu berezituarik; gaixotasun hauek arretoa zorrotza behar dutelako; kartzelan egonik, balizko larrialdi baten aurrean erantzunik emateko gaitasun ezagatik; Josu Uribetxeberriaren kasuan, argudio guzti hauek dagoeneko Madrilgo Barne Ministeritzatik ere berretsi dira.

Josu Uribetxeberriaren baldintzapeko askatasunaren ondoren, beste hamahiru dira gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten presoak eta aipatutako argudio berdinak kontutan izanik, kaleratu behar direnak. Hamalau preso eta beraien senitartekoak zigor gehigarria ari dira nozitzen. Preso hauei baldintzapeko askatasuna ukatuz, giza eskubideen oinarritzko zutabeak urratzen ari da Madrilgo arduradun politikoak.

Nazioarte zein estatu espainiarreko araudi, zuzenbidearen printzipio eta giza eskubideen aldeko aldarrikapenek, gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten pertsona presoek eskubideak errespetatzeko beharra adierazten dute. Gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten pertsona horiek, beharrezkoa duten tratamendua eta zaintza medikua behar bezalako baldintzetan jasotzea, oinarritzko eskubidea delarik.

Hau guztia kontutan harturik, honako puntu hauek aurkezten ditugu Osoko Udal Batzarrerara, bertan eztabaidatuak eta onartuak izan daitezten:

- 1.- Udal honek, preso gaixoen egoera larriaren aurrean, bere kezka adierazten du. Era berean indarrean dagoen legea beteaz eta herritarren gehiengoaren borondatearekin bat eginaz, urrats errealak emateko deia egiten dio Madrilgo gobernuari.
- 2.- Udal honek, nazioarteko eta espainiako legedia oinarritzat hartuaz, gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten hamahiru presoek baldintzapeko askatasuna eskatzen du. Beharrezkoa duten osasun tratamendua baldintza egokietan jaso dezaten eta egoera honek, bai beraientzat zein beren senitartekoentzat ere, zigor gehigarria suposatu ez dezan.
- 3.- Erabaki honen berri, Madrilgo Barne Ministeritza eta Kartzela Zaintzako Epaileari bideratzea.

Euskal Herrian 2012ko irailean.
Bildu



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

Gaia bozkatzen da gehiengo absolutuz onartzen ez delarik, BILDU taldeko Gema Etxaniz eta Iñigo Sarasola zinegotzien aldeko botoarekin eta OHE taldeko zinegotzia Jose Bernardo Aldasorekin abstentzioarekin

Se vota la moción quedando rechazada por mayoría absoluta, con los votos a favor de los concejales de BILDU, Gema Etxaniz e Iñigo Sarasola y la abstención del concejal de OHE, José Bernardo Aldasoro

GALDERA ETA ERREGUAK

Iñigo Sarasola jaunak(BILDU) egindako galdera eta erreguak

- Euskararen inguruko bileraren deialdia bidali zen gutxiko aurrerapenari buruzko kexa.
- Udalbatzarreko Aktak bidaltzen diren epeari buruzko kexa. Batzorde Informatzaileak ospatzen diren momenturako bidaltzea eskatzen du. Alkateak legeak eskatzen duen epean bidaltzen direla erantzuten dio.
- 3.000€-tik gorako fakturen artean, besteak beste, Excavaciones Gañera eta Tapia Instalakuntzak enpresen aurrekontua ikusi nahi ditu.
- 3.000€ -tik beherako fakturen URRIKO zerrenda ikusi nahi du.

Jose Bernardo Aldasoro jaunak(OHE) egindako galdera eta erreguak

- Tiro zelaiaren inguruan herritarrei bidalitako idatziaren inguruko galdera.

Ez dago ados jakinarazteko erabili diren

RUEGOS Y PREGUNTAS

Ruegos y preguntas formuladas por Iñigo Sarasola (BILDU)

- Queja por la poca anticipación con que se remitió la convocatoria sobre la reunión de Euskera que se realizó esa semana.
- Queja por el retraso en el envío de las Actas del Pleno. Solicita que sean enviadas para el momento en que se celebre las comisiones informativas. Le contesta el Alcalde indicándole que las actas se envían dentro del plazo legal.
- Solicita ver el presupuesto, entre otras, de una factura de Excavaciones Gañera y de Tapia Instalaciones, cuya factura es superior a 3.000€.
- Solicita ver la relación de facturas de importe inferior a 3.000€ del mes de OCTUBRE.

Ruegos y preguntas formuladas por José Bernardo Aldasoro (OHE)

- Pregunta sobre el escrito enviado a los vecinos en relación con el Campo de Tiro.

No está de acuerdo con las formas que se



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

formekin. Tiro zelaiaren kokapena ontzat ematen da eta berez, txarrenetakoen artean, onena izango litzateke, lursail hori dagoeneko kutsatuta baitago. Biztanleei buruz egindako adierazpenei buruz, denak olaberritarrak dira erroldan sartuta dauden epea kontutan izan gabe. Alkateak erantzunez bere adierazpenak argitu nahi izan ditu eta horretarako tiro zelaiaren arazoa duela 10 urte bazegoen hor baina orain izan da arazoa bihurtu denean.

Epaitegiak emandako sententziari buruz, epailea ez da funtsean sartu. Bakarrik jendeari zerbitzu bat ematen diola kontutan izan da, eta ez hotsa ezta kutsadura bezalako alderdiak.

Ez dago ados Udalak jarduera lizentzia tramitatzeaz, batez ere, olaberritarrik ez dagoela ekintza horretan parte hartzen kontutan izanik. Alkateak hori ez dela egia erantzuten dio, eta elkartean bazkide bezala olaberritarrak ere badaudela.

Iñigo Sarasolak olaberritarren inguruan esandakoarekin berdin pentsatzen dutela esaten du. Denak olaberritarrak dira eta ez daudela bigarren mailako biztanlerik.

Beste aldetik, tiro zelaia udaletxearen arazo bat da eta horren kontra daudenekin negoziatu behar duela arazoari irtenbide bat bilatzeko. Ulertzen ez duena, zera da, zergatik udaletxeak jarduera lizentzia lortzeko gastatu behar duen dirua.

Alkateak tiro zelaia udalarena dela eta

han utilizado en la comunicación. Se da por buena la ubicación del campo de tiro y viene a resultar que de las peores localizaciones, ésta sería la menos mala por estar ya contaminada.

Sobre las consideraciones relativas a los vecinos, son olaberritarras todos los vecinos sin tener en cuenta la antigüedad en la que se empadronaron.

El Alcalde le replica y quiere puntualizar que el problema del Campo de tiro ya existía hace 10 años y nadie decía nada, pero ahora de repente se convierte en problema.

Sobre la sentencia dictada por el Juzgado, le parece que no ha entrado en el fondo del asunto. Sólo se ha tenido en cuenta que da un servicio a la gente, pero no en consideración aspectos relativos al ruido ó a la contaminación.

No está de acuerdo que el Ayuntamiento tramite la licencia de actividad, sobre todo teniendo en cuenta que no hay ningún olaberritarra participando de la actividad. El Alcalde le responde que no es cierto que no haya ningún olaberritarra participando. Hay incluso socios.

Iñigo Sarasola dice que piensan igual sobre el tema de la consideración de los ciudadanos como olaberritarras. Todos son olaberritarras de la misma manera y no hay olaberritarras de segunda.

Por otro lado, considera que el campo de tiro es un problema para el ayuntamiento y que debería negociar con los que se oponen al mismo para dar una solución al problema. Lo que no entiende es por qué el ayuntamiento tiene que gastar dinero para conseguir la licencia de actividad.

Según el Alcalde, en principio, el campo de



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

legeztatuta egon behar duela esaten du. Horrez gain, oraindik argitzeko dago nork asunituko duen gastu hori.

Iñigo Sarasolak beste zinegotzien iritzia jaso nahi du. Amaia Cuellarren ustez, tiro zelaia 44 urte martxan egon ondoren eta herrikoa izanik pena merezi duela mantentzea.

Bertaratutako jendeak aurkeztutako galdera eta erreguak

Pedro Heras. Udalbatzarreko jarrera bizilagunen arteko liskarrak eta gaizki-ultertuen aurrean eta Udalak parte hartuko duen ala ez jakin nahi du.

Iñigo Sarasolak, BILDU taldeko partaide bezala, gai hau arreta handiz tratatu behar dela eta batzorde berezia sortu beharko zela uste du. Beste herri batzuetan antzeko gaiak izan dituzte eta horien inguruak ordenantzak badituzte. Bere ustez, Dekretu horiek egokitu beharko lirakeela gure errealitatera.

Alkateak gai honen inguruan ordenantza bat sortu behar dela uste du. Beste herri batzuen ordenantza aztertu ditu baina Olaberriko arazoarekin ez daukateko inolako antzarik.

Denuntziarik balego, udaltzaingorik ez dagoenez, Ertzaintza deitu beharko zen. Ez du irtenbide erraza ikusten.

Pedro Heras herritarrak udala inplikatu beharko zela eta ez beste aldera begiratu

tiro es municipal y se considera que tiene que estar legalizado. Además todavía no ha quedado determinado quién pagará este gasto.

Iñigo Sarasola quiere recabar la opinión del resto de concejales al respecto. Amaia Cuellar le responde que considerando que el campo de tiro lleva 44 años funcionando, es del pueblo y merece la pena mantenerlo.

Ruegos y preguntas formuladas por el público

Pedro Heras. Quiere conocer el posicionamiento del Pleno sobre si el Ayuntamiento de Olaberria como tal va a intervenir en relación temas de disputas y malos entendimientos entre vecinos.

Iñigo Sarasola le contesta que, a nivel de BILDU, cree que hay tratar este tema con mucha delicadeza y constituir una comisión específica para ello. Hay otros pueblos con argumentos parecidos en los que ya se han tratado estos temas y que disponen de ordenanzas al respecto. Cree que deberían adaptar lo que ya existe.

El Alcalde dice que le parece que hay que crear una ordenanza sobre este tema. Ha repasado las ordenanzas de otros municipios, pero no guardan ninguna semejanza con la problemática de Olaberria.

Ante denuncias que se pudieran presentar y al no disponer de policía municipal, habría que llamar a la ertzaina. No ve clara una solución.

El vecino Sr. Heras dice que el ayuntamiento se tiene que implicar y no mirar a otro lado.



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

esaten du. Udalbatzarraren konpromiso bat nahi du eta Akta agertzea.

Asesore juridikoaren esanetan, Kode zibila dago holako arazoak konpontzeko eta Zibileko epaitegiek hura betetzeko arduradunak dira.

Hotsen arazoan gaietarako, Pedro Heras-ek errazena udalak hotsak neurtzeko tresna jartzea izango zela esaten du. Udalak ez dituela baliabiderik erantzuten zaio.

Pedro Heras-ek desgrazia bat saihesteko neurriren bat hartu beharko zen. Ertzaintzaren ustez, udalak ere inplikatu beharko zen.

Araudi bat behar da eta hori kontratatzeko baliabideak.

Alkateak ordenantza bat egin eta kontrolatu ahal izateko dauden aukerak aztertzeko konpromisoa hartzen du eta norbaitek irtenbideren bat topatu ezker, lan batzordeetara eramateko eskatzen du.

Eta aztertzeko beste gairik egon gabe, Alkate jaunak bukatutzat ematen du bilkura arratsaldeko zazpiak eta hogeita bost direnean, eta nik, Udalbatzako Idazkaria naizenez, adierazitako guztiaren Akta egiten dut.

Quiere el compromiso de que figure este tema en el Acta del día de hoy y se busque una solución.

El código Civil está para resolver este problema y son los juzgados de los Civil los encargados de velar por su cumplimiento, según el asesor jurídico.

Para el tema concreto de los ruidos, Pedro Heras indica que sería tan sencillo como colocar un medidor de ruidos por parte del ayuntamiento. Se le responde que el Ayuntamiento no cuenta con medios.

Pedro Heras cree que hay que hacer algo para evitar alguna desgracia que nadie desea. Según la Ertzaina, el ayuntamiento también debe implicarse.

Hace falta una normativa y medios para controlar su cumplimiento.

El Alcalde se compromete a mirar si se puede elaborar una ordenanza y cómo controlar su cumplimiento, y solicita que si se encuentra una solución, se lleve a las comisiones de trabajo.

Y sin más asuntos por tratar, el Sr. Alcalde da por terminada la sesión cuando son las diecinueve horas y veinticinco minutos, y yo, el Secretario de la Corporación, expido el Acta de todo lo manifestado.

ALKATEA / EL ALCALDE

IDAZKARIA / EL SECRETARIO